



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO ZIURTAGIRI PROFESIONALEN, GAITASUN-ZIURTAGIRIEN ETA KONPETENTZIA-EGIAZTAPEN PARTZIALEN EUSKAL ERREGISTROA SORTZEKO ETA HURA EMATEKO PROZEDURA EZARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) II. kapituluan xedatzen du. Bigarren atala. Hasiera, 12.1 artikulua: xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Era berean, 13.1 artikulua hasteko agindu horrek bete beharreko baldintzak eta edukia adierazten ditu.

Arau-proiektuaren xedea eta helburua

Erabaki da hasiera ematea ziurtagiri profesionalen, gaitasun-ziurtagirien eta kompetentzia-egiaztapen partzialen Euskal Erregistroa sortzeko eta hura emateko prozedura arautzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari. Helburua da araudi autonomikoa Estatuan indarrean dagoen esparrura egokitzea, ziurtagirien eta egiaztapenen baliozkotasun ofiziala bermatzea lurralde nazional osoan, eta haien kudeaketa elektronikoa erraztea.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Bideragarritasun juridikoa EAEk hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren arloan duen eskumenean oinarritzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak EAERI esleitzen dio irakaskuntzaren gaineko eskumen propio eta eksklusiboa, haren hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, hargatik eragotzi gabe Estatuari dagozkion eskumenak (hala nola goi-ikuskaritza edo berdintasunerako oinarritzko baldintzak). EAEk bere arau-esparrua garatu du, hala nola 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, eta 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarena, hezkuntza-sistema eta lanbide-heziketa arautzen baitituzte beren lurralde-eremuan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) araututako irakaskuntzei dagozkien titulu eta ziurtagiri akademiko eta profesionalak ematea abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretuak arautzen du (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuen). Errege-dekretu horrek ezartzen du zer baldintza bete behar dituzten hezkuntza-administrazio eskudunek tituluen ofizialtasuna bermatzeko lurralde nazional osoan, bai eta izapidetze-prozedurak eta tituludunen erregistro publikoak bermatzeko ere.

Era berean, uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak (uztailaren 9ko 658/2024 Errege Dekretuaren bidez partzialki aldatua) Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen du. Titulu, ziurtagiri eta egiaztapenen erregistroa eta ematea arautzen du IV. kapituluak, eta ezartzen du administrazio eskudunek erregistro autonomiko espezifikoak sortu behar dituztela ziurtagiri profesionaletarako (C gradua), gaitasun-ziurtagirietarako (B gradua) eta kompetentzia-egiaztapen partzialetarako (A gradua). Errege-dekretu horren XV. eranskinean jasotzen dira haien zehaztapen teknikoak.

Bideragarritasun materiala bermatuta dago Hezkuntza Sailean erregistroa kudeatzeko eta ziurtagiriak emateko baliabide teknikoak eta giza baliabideak daudelako.



Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, apirilaren 30eko 52/2024 Dekretuak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako tituluak emateko eta erregistratzeko prozedura arautzen du, D graduei (oinarrizko teknikaria, teknikaria eta goi-mailako teknikaria) eta E graduei (teknikari espezialista eta lanbide-heziketako masterra) dagozkien tituluak barne, Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Dekretua indarrean jartzeak erregistro autonomiko berri bat sortzea eta emateko prozedura espezifiko bat arautzea ekarriko du, aurretiazko arauak indargabetu gabe, baina 52/2024 Dekretua osatuz (52/2024 Dekretua, apirilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako tituluak emateko erregistroari eta prozedurari buruzkoa).

Inpaktuaren, emaitzaren edo bestelakoen ebaluazioak

1. Arau-eraginaren ebaluazioa

Ziurtagiri profesionalen, gaitasun-ziurtagirien eta konpetentzia-egiaztapen partzialen Euskal Erregistroa sortzeko oinarria da esparru autonomikoa Estatuko oinarritzko araudira egokitu behar dela, bereziki uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretura eta uztailaren 9ko 658/2024 Errege Dekretuak egindako aldaketara. Horiek Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen dute, eta administrazio eskudunen betebeharra ezartzen dute A, B eta C graduetako ziurtagiriatarako erregistro autonomikoak sortzeko.

Dekretu hau bat dator Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearekin.

Arauak segurtasun juridikoa indartzen du ziurtagiriak eta egiaztapenak ematean, Lanbide Heziketako Estatuko Erregistroarekiko elkarreragingarritasuna bermatzen du eta prozedura elektronikoa integral bat ezartzen du, administrazioaren eraldaketa digitalarekin bat datorrena, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat etorritik.

2. Administrazio-eraginaren ebaluazioa

Arauak administrazio-kargak sinplifikatzea aurreikusten du herritarrentzat, ikastetxeentzat eta administrazioarentzat berarentzat, erregistratzeko eta emateko prozedura zentralizatu eta automatizatu egiten baitu. Inskribatzeko eta emateko prozeduraren digitalizazio osoak, dekretu-proiektuaren 6. artikuluaaren arabera, izapidetze-denborak eta kostu operatiboak murriztuko ditu.

Erregistroan inskribatzeko prozedura automatizatuak, 9. artikuluan deskribatuak, eta Estatuko Erregistroarekiko elkarreragingarritasunak, 2.e) artikuluaaren arabera, kudeaketa eraginkorra eta segurua ahalbidetzen dute.

3. Aurrekontu-eraginaren ebaluazioa

Erregistroaren ezarpena Hezkuntza Sailean lehendik dauden azpiegitura teknologikoetan oinarritzen da. Ez da gastu publikoaren igoera esanguratsurik aurreikusten, sistemaren mantentze- eta eguneratze-kostu arruntetatik harago.

Jaulkipenagatiko tasek, 2.a) artikuluan aurreikusitakoek, lotutako kostuak partzialki ordaintzen lagunduko dute.

4. Herritarrengan duen eraginaren ebaluazioa

Arauak eragin positiboa du herritarrengan, bide formalen, ez-formalen eta informalaren bidez eskuratutako gaitasunen aitorpen ofiziala bermatzen baitu.

Elektronikoki egiazta daitezkeen ziurtagirien bidez enplegu publiko eta pribatuko prozesuetarako sarbidea errazten du, eta egiaztapen-prozesuen gardentasuna eta trazabilitatea areagotzen ditu.

5. Genero-eraginaren ebaluazioa

Ez da generoaren arabera eragin bereizirik identifikatu. Hala ere, tratu-berdintasunaren printzipioa prozeduraren fase guztietan aplikatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.

Hizkuntza inklusiboaren erabilera eta prozeduren eskuragarritasuna bermatuko dira pertsona guztientzat.

6. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa

Dekretuak hizkuntza-koofizialtasuna bermatzen du, eta ezartzen du egiaztapenak eta ziurtagiriak euskaraz eta gaztelaniaz emango direla, tipografia- eta lege-baldintza berdinetan, dekretu-proiektuaren 5.4 artikuluen arabera.

7. Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa

Datu pertsonalen tratamendua bat dator Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduekin (DBEO).

Dekretu-proiektuaren 4.4 artikulua ezartzen du datu pertsonalak indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko direla, informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatuz.

8. Laguntzako azterlanak eta dokumentazioa

Ekimena lanbide-heziketaren arloan indarrean dagoen Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian oinarritzen da, bai eta Hezkuntza Sailaren azterketa tekniko-juridikoan ere.

Kontuan hartu ditu erregistro akademikoen kudeaketan aurretik izandako esperientziak eta elkarreragingarritasunari eta digitalizazio administratiboari buruzko txosten teknikoak.

Aurrekontuetan izango duen eragina

Ez da aurreikusten aurrekontu-gehikuntzan eraginik izango duenik, lehendik dauden azpiegiturak eta baliabideak erabiliko baitira. Ziurtagiriak emateko, tasak ordaindu beharko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Egin beharreko izapideak eta txostenak

XOEPLren 13.1 artikularen e) apartatuan xedatutakoaren arabera, jarraian zehazten dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Herritarrei aurretiazko kontsulta publikoa egitea 15 egun balioduneko epean, azaroaren 4tik 2025eko azaroaren 25era.

2.- Prozedura hasteko agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Era berean, agindu hau Legesarea ezagutza partekatuko lankidetzagunean argitaratuko da.

3.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Arau-testua aldeztu aurretik onartu ondoren, XOEPLren 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da.

4.- Generoaren araberrako eraginari buruzko txostena.

XOEPLren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberrako eraginari buruzko txosten bat idatziko da.

5.- Txosten juridikoa.

XOEPLren 15.3 artikulua ezartzen du espedientearen edukia eta azterketa juridikoa saileko zerbitzu juridikoak egindako txosten juridiko espezifiko baten bidez gauzatu ahal izango direla. Txosten bat eskatuko da proiektuaren oinarrien defentsa juridikoa egiteko, haren edukia legeari egokitzeko eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzeko.

6.- Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena.

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua ezartzen duenez (2012ko uztailaren 6ko EHAA), EAEk sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-txosten bat egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz.

7.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, 233/2012 Dekretuak, azaroaren 6koak, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan agintzen duen eran.

- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren txostena.
- Eskola Kontseiluaren txostena.

XOEPLren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten horiek guztiak aldi berean eta hilabeteko epe komunean egingo dira, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

8.- Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

XOEPLren 19. artikulua zehazten duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

Txostena, ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena. •

9.- Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea XOEPLren 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

10.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Espedientea osorik izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko zaio Eusko Legebiltzarrari, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoaren arabera.

11.- Gardentasuna.

Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

12.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egiteko prozedura amaitutakoan, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, azken onespina eman diezaion, XOEPLren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Herritarrek parte hartzeko plana

Aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea gaitu da, arauak eragindako herritarrei eta erakundeei, hala nahi badute, beren iritzia helarazi ahal izan diezazkieten, hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, XOEPLren 11. artikuluen arabera.

Itzulpenerako edo idazketa elebidunerako teknika

Dekretu-proiektua idazteko, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen

Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoa bete beharko da.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzultzea izango da, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duena) xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoa

Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza arduratuko da instrukzioaz.

Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauetan xedatutakoari jarraikiz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren izapidetze-jarraibideak onartzen dituen, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, EAEko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Ziurtagiri profesionalen, gaitasun-ziurtagirien eta konpetentzia-egiaztapen partzialen Euskal Erregistroa sortzen duen eta ziurtagiri horiek emateko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena.- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza izendatzea legegintzako prozedura hau izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Legesarea lankidetzeta-gunearen bidez, dekretu-proiektu honen berri ematea, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoarekin bat etorritik. Erabaki horren bidez, legeak eta xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu ziren.

Laugarrena.- Dekretu-proiektua egiteko prozedura XOEPLn ezarritakora egokitu beharko da, eta beharrezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak bete beharko ditu, Aholkularitza Juridikoaren txostenak horretarako ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

María Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntzako sailburua